## Itsasuntzien eta teknologiaren bitxikeriak

Britainia Haundiko Osasun-txosten zaharrak miatu ostean, XIX. mendeko itsasaldeko biztanleek zorabiorako joera handia zutela baieztatu ahal izan da. Itsasuntzira igo orduko konortea galtzeraino gaixotzen zirenen artean Horatio Nelson almirante britainiarra aipa daiteke. Plymouth-eko Itsas-Teknologiarako Institutuan gertakari bitxi honi buruzko ikerketa interesgarria egin eta horren berri eman dute jadanik.
Trafalgarko batailan erabilitako eredua aztertu dute, bereziki itsasuntziaren oreka-sistemak. Jakina denez, britainiarren gerrarako teknika arerioak ezustean harrapatu eta inguratzean zetzan. Maniobraren erdian erasoari ekin ahal izateko, kanoien mugikortasuna ziurtatzea funtsezkoa zen. Horretarako, itsasoaren mailatik ahalik eta gertuen kokatzen ziren kanoiak. Horrek, bistan denez, azkarrago mugitu behar izatea eragiten zuen kanoiak ez bustitzeko. Eraso-taktiken edo uraren eraginez, itsasuntziak mugimendu motzak eta azkarrak egiten zituen etengabe. Horra hor zorabioaren benetako arrazoia.



**Britainia Haundiko Osasun-txosten zaharrak miatu ostean, XIX. mendeko itsasaldeko biztanleek zorabiorako joera handia zutela baieztatu ahal izan da.**

## Telefono-gerra

EEBBetako ProCD izeneko enpresak British Telecom telefono-konpainia kinka larrian jarri du oraingoan. ProCD-ek Britainia Haundiko telefono guztiak CD-ROM batean biltzeko asmoa azaldu du eta, agidanez, prototipoa prest dute jadanik. Une honetan auzitegien esku dago afera, baina estatubatuarrek lanean dihardute, legeak telefono-zerrenden hedapen-eskubidea aitortuko dielakoan baitaude. Horrela gertatuko balitz, CD-ROM irakurgailua duen edonork Britainia Haundiko telefono-zerrenda kontsultatu eta bertan dagoen informazioaz baliatu ahal izango da segundo gutxiko tartean. Iaz EEBBetako telefono-zenbaki guztiak biltzen dituzten bost CD-ROM merkaturatu zituen enpresa horrek.

## Teknologia gerraren zerbitzura

Gerra eta teknologia elkarren lagun min direla sarritan frogatu ahal izan da. Oraingoan, EEBBetako Armadak martxan jarri duen prestakuntza-eredu berria albiste bilakatuko da aurki. EEBBetako soldaduek mundu osoan borrokatu ahal izango dute koarteletik irten gabe. Errealitate birtualaz baliatuko dira horretarako. Argazkian ageri den soldadua da sistema berria erabili duen bakarrenetakoa. Landsat satelitearen bidez, soldaduak aldez aurretik aukeratutako koordenatuetara jo dezake, lau dimentsiotako (hiru koordenatuak eta denbora-aldagaia) egoera sortu berrian borrokatu ahal izateko. Sateliteak igortzen duen informazioa koartel nagusitan jorratu eta osatu egiten da. Prestakuntza-eredu berriaren bidez bestalde, ez da gerra-simulazioa bakarrik landuko, EEBBetako Armadak dioenez, soldaduak egoera zaileei aurre egiten ohitzeko tresna ezin hobea izango baita.

**Gerra eta teknologia elkarren lagun min direla sarritan frogatu ahal izan da. Oraigoan ere bai.**

